

05/07 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.
Javier Del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Pilar Ramírez and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Otxoa jn.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2005eko apirilaren 27an egindako bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Arte Plastiko eta Diseinuko Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako sarbide probak arautzen dituen Agindu proiektuari buruzkoa.

Eva Blanco and.
Idazkari Teknikoa.

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Arte Plastiko eta Diseinuko Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako sarbide probak arautzen dituen Agindu proiektua, hari buruzko nahitaezko txostena eman dezan.

Halaber, helarazi dira Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzak emandako txostena, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria.

AURREKARIAK:

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, araubide bereziko irakaskuntzei buruzko Bigarren Tituluan arte-irakaskuntzak zehazten ditu, eta xedetzat ikasleei kalitatezko arte heziketa ematea eta musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuaren biharko profesionalen kualifikazioa bermatzea dauka.

Halaber, Abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoak, I. Tituluan, hezkuntza sistemaren egiturari buruz ari dela, Arte-Irakaskuntzak araubide bereziko eskola-irakaskuntzen barnean atxikitzen ditu

LOGSEk 48. artikuluan xedatzen du erdi mailako ziklora sartzeko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edukitzeaz gain, eta goi mailako ziklora sartzeko Batxilergo titulua edukitzeaz gain, kasuan kasuko sarbide proba gainditu beharko dela, berariazko

sarbide proba alegia, eta proba honen bitartez, ikasleek egiaztatu ahal izango dute badi-tuztela behar diren gaitasunak dagokien heziketa zikloa egin eta etekina ateratzeko. Dena dela, eskatutako titulazioak ez dituzten pertsonak, adinaren gaineko baldintza ja-kin batzuk betez gero, ikasketa hauek egin ditzakete bi partetan zatitutako sarbide proba bat gainditu ondoren: bata orokorra edo heldutasun proba, eta bestea berariazkoa.

Irailaren 9ko 1843/1994 Errege Dekretuak Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mai-lako teknikarien tituluak (Eskulturako Arte Aplikatuaren Lanbide Arlokoak) eta hauei da-gozkien gutxienezko irakaskuntzak ezarri zituen. Errege Dekretu honen ondorioz eta ildo beretik, 1994. urteaz geroztik garatutako Errege dekretu batzuek Arte Plastiko eta Diseinuko erdi mailako eta goi mailako tituluak, sarbide probak eta haiei dagozkien curriculumak zehazten dituzte.

Aurretik esandakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Arte Plastiko eta Diseinuko heziketa zikloetako curriculum diseinuak garatzen dituzten Dekretuak ar-gitaratu dira, hala nola sarbide probak egiteko baldintzak. Halaber, xedatu da ezen Hez-kuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Aginduaren bitartez zehaztuko direla proba hauetako egitura, edukia eta ebaluazio irizpideak, ikasleek egiaztatu ahal dezaten badituztela behar diren gaitasunak dagokien heziketa zikloa egin eta etekina ateratzeko.

EDUKIA

Dekretu proiektu honek, 10 artikulua, azken xedapen bi eta lau eranskin dauzka.

1. artikulua arauaren xedea zehazten du: Euskal Autonomia Erkidegoaren ere-muan Arte Plastiko eta Diseinuko erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetako sar-bide proba arautzea.

2. artikulua sarbide probako deialdiaren ezaugarri orokorrak finkatzen ditu.

3. artikulua ikasleek proba hau egiteko bete behar dituzten ikasketa-baldintzak zehazten ditu, alegia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua edukitzea, eta Goi Mailarako, berriz, Batxilergo titulua.

4. artikulua erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetako sarbide probatik salbuetsita nortzuk dauden zehazten du.

5. artikulua ikasketa-baldintzarik gabeko ikasleek sarbide proba egiteko bete be-har dituzten baldintza orokorrak arautzen ditu eta probaren parte orokorraren eta bera-riazkoaren helburuak finkatzen ditu, bai erdi mailako ziklorako bai goi mailakorako.

6. eta 7. artikuluek, hurrenez hurren, sarbide probaren egitura eta edukiak arautzen dituzte ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzat eta ikasketa-baldintzarik gabekoentzat.

8. artikulua sarbide proben ebaluazioari dagokio: 1. eta 2. atalek epaimahaiaren osaketa eta eginkizunak jasotzen dituzte eta 3. atalak proben sailkapena jasotzen du, betiere ikasketa-baldintzak betetzen dituzten ikasleak eta betetzen ez dituztenak bereizirik.

8. artikulua ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikasleak onartzeko irizpideak zehazten ditu.

10. artikulua ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan plazak esleitzeko prozedura finkatzen du, eta salbuetsitako ikasleentzat, ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzat eta ikasketa-baldintzarik gabekoentzat erreserbatuko den plaza portzentajea zehazten du.

Eranskinak administrazio-agirien ereduak jasotzen dituzte: izena emateko eskabi-deak eta kalifikazio-aktak.

Azken xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Diseinu grafiko eta barne-diseinuko erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetako curriculumak arautzen dituzten Dekretu proiektu batzuen inguruan Kontseilu honek emandako Irizpenean, esaten genuen heziketa zikloetara sartzeko egin beharreko berriazko proba arautzea atzeratu egiten zela, alta, gai honi garrantzitsu eta lehenbailehen arautu beharreko deritzogu.

Arau honek eskaera horri erantzuten dio. Agindu honetan, curriculumak arautzen dituzten Dekretuetan jasotzen ziren puntuak zehazten dira:

10. artikulua.– *Heziketa ziklorako sarbidea, ikasketa-baldintzak beteta.* Jasotzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Aginduaren bitartez zehaztuko dira berriazko proba honetako egitura, edukia eta ebaluazio irizpideak, ikasleek egiaztatu ahal dezaten badituztela behar diren jakintzak eta gaitasunak ikasketa hauek egin eta etekina ateratzeko. Probaren oinarritzko egitura ere jasotzen da.

12. artikulua.– *Heziketa ziklorako sarbidea, ikasketa-baldintzarik gabe.* Jasotzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Aginduaren bitartez zehaztuko dira proba honetako egitura, edukia eta ebaluazio irizpideak, ikasleek egiaztatu ahal dezaten badituztela behar diren jakintzak eta gaitasunak ikasketa hauek egin eta etekina ateratzeko.

13. artikulua.– Plazen erreserba. Jasotzen duenez, sarbide proba arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Aginduak zehaztuko ditu erabil daitezkeen plaza erreserben portzentajeak, ikasleek ikasketa hauei ekin ahal diezaieten, bai proba gainditutakoei dagokienez, bai 11. artikulua jasotzen dituen salbuetsitako kasuei dagokienez. **Halaber, plazak esleitzeko balorazio-irizpideak ezarriko ditu.**

- Gure iritzian, aurkeztu zaigun Agindu proiektuak egoki arautzen ditu curriculumak garatzeko dekretuetako 10. eta 12. artikuluetan jasotzen diren sarbide probak, bai eta 13. artikuluan jasotzen diren plaza erreserben portzentajeak ere, baina gure iritzian plazak esleitzeko balorazio-irizpideak ez dira sartu agindu honetan. Gure ustez, zehaztu beharko litzateke irizpideren bat, aurkeztutakoen artean bata edo bestea hautatu ahal izateko, eskaintza baino eskari handiagoa badago ere.
 - Halatan, bada, ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzako sarbide probei dagokienez, aipatu beharko litzateke ikastetxeek eskainitako plazak esleitzerakoan kontuan hartuko direla azken kalifikazioak.
 - Berariazko ikasketa-baldintzarik gabeko ikasleei dagokienez, esaten da berariazko proba egiteko zati orokorra gainditzea ezinbestekoa dela, hala nola bi zatiak gainditu behar izango direla gai kalifikazio globala erdies-teko, hala ere, zehaztu beharko litzateke nola lortzen den kalifikazio glo-bala, hau da, bi proben batez bestekoa den, eta zein kualifikazio hartuko den kontuan plazak esleitzerakoan.
 - Salbuetsitakoei dagokienez, plaza erreserben portzentajeak finkatzen di-ren arren, ez da inolako irizpiderik zehazten hauek esleitzeko, adibidez “probatik salbuetsita egotea justifikatzen duten ikastaroetan erdietsitako sailkapenetako batez besteko notak,” edo egokitzen jotzen diren beste irizpide batzuk.

- Beste alde batetik, gure iritzian, zentzugabekoa da 9. artikulua- *ikastetxe publi-koetan eta itunpekoetan ikasleak onartzeko irizpideak*. Lehenik eta behin, aipatu-tako dekretu biak, otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuaren aldaketak dira, izan ere, honek EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzea arau-tzen du (EHAA, 97/02/10), alta, urtarrilaren 27ko 8/1998 Dekretuak eta urtarrila-ren 23ko 9/2001 Dekretuak aldatu dute Dekretu hori, hala ere, indarrean segitzen du, zeren eta aldaketek Dekretuaren alde partzialak baizik ez baitituzte ukitzen. Baina Dekretu honek Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hez-kuntzako ikasleak onartzea arautzen du, eta denak dira araubide orokorreko ira-kaskuntzak. Arte plastiko eta diseinuko irakaskuntzak, ordea, arte-irakaskuntzak dira eta arautegi bereziko irakaskuntzak dira, musika, dantza eta arte dramatikoa bezala. Ez dago irakaskuntza hauetan ikasleak onartzeari buruzko arautegirik. Ai-

tzitik, sarbide probak berak zehazten du onartze prozesua, beraz, artikulua hau kendu beharko litzateke.

- Azkenik, 2.3 artikuluan jasotako sarbide probaren indarraldiari dagokionez, bertan dioenez: “*sarbide proba gainditu izanak sarbide baldintza gisa balio izango du estatu osoan, eta indarrean izango da Heziketa Zikloko irakaskuntzak eta titulua aldatzen ez diren bitartean,*” gure iritzian beharbada gehiegizkoa da, eta indarraldiko epea eta epe laburragoa finkatu beharko litzateke.

Ez dakigu ba ote dagoen honelako proben indarraldia erregulatzen duen oinarriko araurik, baina onartze prozesuetan konparaziozko bidegabekeriarik egon ez dadin erkidegoen artean, arau hau bateratu egin beharko litzateke

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da..

Bilbo, 2005eko apirilaren 27an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Sinaturik : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.